

FRANCO AURELIANI

DINO-MIKEL

ETA

MUSEOKO NAHASPILA



desclée

DINO-MIKEL

ETA

MUSEOKO NAHASPILA

EGILEA ETA ILUSTRAZIOAK

FRANCO AURELIANI

desclée

AURKIBIDEA

1. atala	
ERNE!	6
2. atala	
DENAK ZABALDU DIRA	20
3. atala	
IRRATIKO ZARATATXOAK	33
4. atala	
JUPITERREN NUKLEOA	45
5. atala	
DINOSAURO-FAMILIA	55
6. atala	
ARRANTZAN-TZAN	61
7. atala	
EZUSTEKO EDERRA IRAGANETIK	67
8. atala	
EGUNDOKO ZORROTADA!	74
9. atala	
DINOSAUROAK ARRAPALADAN	86
10. atala	
PELIKULAKO HERGIA	101



DINO-MIKEL

Mikel Evans gaztea beti ibiltzen da aitarekin bidaiatzen, aita dinosauro-fosilen bila aritzen delako. Britainia Handiko kostalde jurasikotik Txinako Liaoning probintziara, Dino-Mikel gaztea toki guztietan izan da. Harrigarria, ezta?!

Aita fosilei hautsa kentzen dabilen bitartean, Mikel hezurretaraino nahasita ibiltzen da dino-kontutan. Baina oraingoan benetako aurkikuntza bat egingo du. Tiranosauro baten arrautza bizidun bat! Aro Jurasikora bidaiatzeko ate bat da!! Urpeko dinosauro-santutegi bat!!!

Inork ere sinetsiko ez lukeen abentura ero eta aldrebes bat bizitzear zaude Dino-Mikelekin...

1. Atala

ERNE!

—Nora uste duzue zoaztela?

Mikelek, gora begiratzean, norbaiten begiradarekin egin zuen topo. Norbait kopeta iluntzen ari zen, eta aurpegia mahaspasa bat bezain zimurtuta zeukan.

Baina ez zen mahaspasa bat. Tipo handi bat zen, bibote handi bat zuena. Benetan iletsua zirudien, norbaitek ezpainaren gainean erratz zurrun bat jarri izan balio bezala.



—Museoa itxita dago! Ezin zarete sartu –esan zien zaindariaik.

—Ez, ez!
—oihukatu zuen ahots batek korridorearen bestaldetik. Mikel oin-puntetan jarri zen eta lepoa luzatu zuen, zaindariaaren besoaren atzean nor zegoen ikusteko—. Lasai –esan zuen ahotsak–, nirekin daude.



Laborategi-jaka zuri batekin jantzita, Giovanni doktoreak presaka zeharkatu zuen museoko korridorea, eskua mugituz.

—Nire gonbidatuak dira!
—errepikatu zuen.

—Sentitzen dut, Giovanni doktorea —esan zion zaindariaik—.

Ez daude zerrendan. Ezin dira
museora sartu ordutegitik kanpo.

—Txorakeriak –esan zion
Giovanni doktoreak. Eskuak Mikelen
sorbaldan jarri zituen, babestu
nahiko balu bezala—. Ez dakizu nor
den?

Zaindariaren aurpegiko keinuak
denei adierazi zien ez zekiela nor zen.

—Gaztetxo honek azken
berrogeita hamar urteotan
dinosaurioen arloan egin den
aurkikuntzarik garrantzitsuena egin
du! –Mikel ziur zegoen Giovanni
doktorea beste norbaiti buruz hitz
egiten ari zela—. Mutil honek aurkitu
zituen datorren asteburuan ikusgai
jarriko diren tiranosauo-arrautzak.

—Benetan? –esan zuen zaindariak,
Mikeli goitik behera begiratu.

—Bai horixe –esan zion Giovanni doktoreak–. Eta hau bere aita da, Stanley Evans doktorea, paleontologo ezaguna.

Mikelen aitak pauso bat aurrera eman zuen eta zaindariari bostekoa eman zion.

—Kaixo –esan zion–. Urte askotarako.

—Jakina, Evans doktorea, ez da zatozen lehenengo aldia –esan zion Giovanni doktoreak–, baina uste dut zure semearen lehenengo bisita dela.

—Bai, egia da –esan zion Mikelek.

—Beno –esan zuen Giovanni doktoreak, korridorean aurrera jarraitzen zuela. Orduan, ate handi bat zabaldu zuen–, ongi etorri New Yorkeko Historia Naturalaren Museora!

